## Herri Lan eta Garraio Saila

**5038/2014 FORU AGINDUA, urriaren 20koa. Honen bidez, bidaiariak eta salgaiak errepidez garraiatzeko diren zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen lanbide-gaitasunerako ziurtagiria lortzeko proben deialdia egiten da.**

Honako foru agindu hauen bidez egin izan dira bidaiariak edo salgaiak errepidez garraiatzeko erabiltzen diren zenbait ibilgailuren gidariei hasierako prestakuntza egiaztatzen dien lanbide-gaitasunerako ziurtagiria lortzeko proben deialdiak: 2009ko uztailaren 28ko 818/2009 Foru Aginduaren bidez egin zen, esaterako, 2009 eta 2010eko deialdia; 2010eko azaroaren 9ko 1098/2010 Foru Aginduaren bidez, 2011. urtekoa; 2011ko urriaren 6ko 1578/2011 Foru Aginduaren bidez, 2012. urtekoa; 2012ko urriaren 5eko 5495/2012 Foru Aginduaren bidez, 2013. urtekoa; eta 2013ko urriaren 16ko 5001/2013 Foru Aginduaren bidez berriz, 2014koa.

Uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretuaren 15. artikuluak ezartzen du, azterketen deialdia gutxienez ere urtean sei aldiz egin behar dela, eta deialdia gutxienez ere lehen ariketaren eguna baino hilabete lehenago egin behar dela; hori dela eta, beharrezkoa da orain 2015eko proben egutegia finkatzea.

Adierazitakoen ondorioz, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan eta Ahaldun Nagusiaren urriaren 27ko 220/2011 Foru Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuta eta Herri Lan eta Garraio Sailaren araudi organikoa onartu zuen azaroaren 20ko 155/2012 Foru Dekretuaren 4.m) artikuluak xedatutakoaren arabera, honako hau sinatzen duenak proposamen hau aurkezten dizu, azter dezazun.

**FORU AGINDUA**

### Lehenengoa

Hasierako prestakuntza egiaztatzen duen lanbide-gaitasunerako ziurtagiria lortzeko probak egiteko 2015. urteko deialdiak onartzea. Ziurtagiri hori beharrezkoa da Gidarien Araudi Orokorrean zehaztutako C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D edo D+E kategorietako gidabaimenak izatea eskatzen duten ibilgailuak bide publikoetan gidatzeko. Hona hemen proben egutegia:

— Lehenengo deialdia: 2015eko urtarrilaren 16an.

— Bigarren deialdia: 2015eko martxoaren 13an.

— Hirugarren deialdia: 2015eko maiatzaren 15ean.

— Laugarren deialdia: 2015eko uztailaren 10ean.

— Bosgarren deialdia: 2015eko irailaren 18an.

— Seigarren deialdia:2015eko azaroaren 13an.

Eskaera-orriak aurkezteko epea:

— Urtarrila: 2014ko azaroaren 28tik abenduaren 19ra.

— Martxoa: 2015eko otsailaren 2tik 20ra.

— Maiatza: 2015eko martxoaren 30etik apirilaren 22ra.

— Uztaila: 2015eko ekainaren 1etik 19ra.

— Iraila: 2015eko uztailaren 30etik abuztuaren 20ra.

— Azaroa: 2015eko urriaren 2tik 23ra.

### Bigarrena

Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bilbon, 2014ko urriaren 20ean.

Herri Lan eta Garrioen foru diputatua,
ITZIAR GARAMENDI LANDA

(I-1716)

## Departamento de Obras Públicas y Transportes

**ORDEN FORAL 5038/2014, de 20 de octubre, por la que se convocan las pruebas para la obtención del certificado de aptitud profesional acreditativo de la cualificación inicial de los conductores de determinados vehículos destinados al transporte de mercancías o viajeros por carretera.**

Mediante las Ordenes Forales 818/2009, de 28 de julio, para los años 2009 y 2010, 1098/2010, de 9 de noviembre, para el año 2011, 1578/2011, de 6 de octubre, para el año 2012, 5495/2012, de 5 de octubre, para el año 2013 y 5001/2013, de 16 de octubre para el año 2014, se aprobaron las convocatorias de pruebas para la obtención del certificado de aptitud profesional acreditativo de la cualificación inicial de los conductores de determinados vehículos destinados al transporte de mercancías o viajeros por carretera.

Como quiera que el Real Decreto 1032/2007, de 20 de julio, establece en su artículo 15 que deberán convocarse exámenes al menos seis veces al año y que dicha publicación deberá realizarse, al menos, con un mes de antelación a la realización del primer ejercicio, es necesario proceder a la fijación del calendario de pruebas a celebrar en el año 2015.

Por lo expuesto, de conformidad con lo previsto en el artículo 17.1.14 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero sobre Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, en aplicación de lo señalado por el Decreto Foral del Diputado General 220/2011, de 27 de octubre, y en virtud de lo dispuesto por el artículo 4 m) del Decreto Foral 155/2012, de 20 de noviembre, por el que se aprobó el Reglamento Orgánico del Departamento Foral de Obras Públicas y Transportes, el que suscribe tiene el honor de someter a V.I. la siguiente propuesta de

**ORDEN FORAL**

### Primero

Aprobar las convocatorias del año 2015 para la realización de pruebas para la obtención del certificado de aptitud profesional acreditativo de la cualificación inicial, necesario para la conducción por vías públicas de vehículos para los que resulte obligatorio estar en posesión de permisos de conducción de las categorías C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D o D+E, definidas en el Reglamento General de conductores de acuerdo con el siguiente calendario:

— Primera convocatoria: 16 de enero de 2015.

— Segunda convocatoria: 13 de marzo de 2015.

— Tercera convocatoria: 15 de mayo de 2015.

— Cuarta convocatoria: 10 de julio de 2015.

— Quinta convocatoria: 18 de septiembre de 2015.

— Sexta convocatoria: 13 de noviembre de 2015.

Plazo de presentación de instancias:

— Enero: 28 de noviembre a 19 de diciembre de 2014.

— Marzo: 2 de febrero a 20 de febrero de 2015.

— Mayo: 30 de marzo a 22 de abril de 2015.

— Julio: 1 de junio a 19 de junio de 2015.

— Septiembre: 30 de julio a 20 de agosto de 2015.

— Noviembre: 2 de octubre a 23 de octubre de 2015.

### Segundo

Ordenar la publicación de la presente Orden Foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 20 de octubre de 2014.

La diputada foral de Obras Públicas y Transportes,
ITZIAR GARAMENDI LANDA

(I-1716)

cve: BAO-BOB-2014a203